

a)

Ekain, Ivanna, Aiala eta Ainhoa gara eta gelako konforta obetzen duen proiektu bat egin dugu.

Lehenengo eta bein, zer da konforta? Erosotasuna erraztasun fisikoaren eta minaren edo murrizketarik gabeko egoera bat da. Pertsona baten atsekabe sentimenduak arintzea hain zuzen ere. Adibidez kotxearen konforta. Auto baten eroso sentitzeko, beroa, tamaina, eserlekua...

Gure proiektua:

Arduinoa erabiliz, eserleku baten tenperatura neurtzen dugu. Tenperatura hau pantaila batean agertzen da. Gero guk beroa handitu ahal dugu nahi dugun mailararte. Beraz, eserleku berogailu bat da. Erregulatzailerik bat dauka eta erregulatzailerik biratuz erabiltzen da.

Honetarako, lehenengo egin dugun pausoa ikertzea da. Konforta zer den ikertu dugu eta gure ustez eserlekuak ez dira ezer erosoak. Beroa izango bazuten hobeagoak izango zirela pentsatu genuen. Horain pandemia dela eta, lehioak irekita egon behar dira eta egun guztia eserita egotea hotzarekin ez da ezer gomendagarria.

Lehenengotan beste ideia bat izan genuen. Gure lehenengo ideia eserlekuen forma aldatzea zen hain zuzen ere atzeko aldea. Denbora luzean eserita egonez gero bizkarreko eta ipurdiko mina edukitzea normala da. Pila bat ordu egiten ditugu eskolan eserita eta hori ez da ez eroso ez osasungarria.

Baina ideia hau ez zen hain ona. Oso zaila da eserlekuari zerbait gehitzea edo kentzea. Gainera larregi diru balioko zuen eta bakarrik problemak sortuko zituen.

Gerora, eserlekuari beroa sartzeko ideia hobeagoa zela pentsatu genuen. Askoz ere konfortableagoa izango zen.

Zailtasun batzuk izan genituen eta hauek dira: Tenperatura pantailan jartzea oso zaila izan zen eta erregulatu ere bai. Ez genuen jakin nola neurtzen dugun tenperatura pantailan agertzea. Hau da, dena konektatzea.